

1. PAGO ETA HARITZEN ARTEAN GOZATZEKO INGURUA !

Nafarroa, Araba eta Gipuzkoako mugek bat egiten duten inguru paregabean daude Urbasa, Andia eta Aizkorriko mendilerroak. Bertako pagadi eta hariztietan zaldiz barneratzeak erreka, amildegi, kobazulo eta trikuharri dotoreez gozatzeko aukera paregabea eskaintzen digu.

2. URDIAINGO ERROTA topaleku eta abiapuntua izango dugu.

XIX. mendeaz geroztik Burunda ibaiko urek jarraitu dute errotarriei bultzaka aleetatik irina sortzeko.



ZALDI IBILALDIAK

Zeure neurriko esperientzia



3. IBILALDIAK

Ordubete edo bi ordukoak

Azken jentilen babesleku izan ziren hariztietan barrena gozatzeko ibilbideak. Antzinako baserriak, zuhaitzen gaineko etxolak edota Nafarroako lehen erregea bera koroatu zuteneko basiliza ezagutzeko aukera ezin hobea izango duzu gurekin.

Egun erdi edo egun osokoak

Zaldizko trebeenentzako irteerak. Gure mendietara iritsi eta bertako paisaia paregabeaz gozatu ahal izango duzu. Harizti amaigabeetan galopan ibiliko zara antzinako zaldunen modura.

4. GURE ZALDIAK

Errotainen, zure maila edozein delarik ere, zaldiekin gozatu ahal izango duzu. Ibiltzen zaren lehen aldia izan zein zaldi ibiltari trebea izan, ez zaizu aukerarik faltako. **Gure zaldiak zelaietan libre ibiltzen direnez**, izaera orekatukoak dira ume eta hasiberriekin aritzeko, baita indartsuak ere ibilbide luzeagoak egiteko.

"Errotain" triptikoa (moldatua)

1.- Zer da "Errotain"?

- A). Nafarroan dagoen errota bat.
- B). Zaldi ibilaldiak antolatzen dituen enpresa bat.
- C). Nafarroa, Araba eta Gipuzkoaren artean dagoen toki bat.
- D). Zaldi baten izena.

2.- Zein da zaldi ibilaldien abiapuntua?

- A). Zelai bat.
- B). Urdiaingo Errota.
- C). Errotain.
- D). Pagadi eta hariztiak.

3.- Zure ustez, zer adierazten du “Zeure neurriko esperientzia” esaldiak?

- A). Zure tamainari egokitutako zaldiak dituztela.
- B). Denbora gehiago pasatzen dutela ez dakitenekin.
- C). Zure ezagutza eta trebetasun maila kontuan izango dituztela.
- D). Zuk erabakiko duzula nondik ibiliko zaren zaldiarekin.

4.- Zaldi ibilaldiak...

- A). toki lauetan egiten dira.
- B). mendi eta baso artean egiten dira.
- C). mendietan egiten dira.
- D). A, B eta C okerrak dira.

5.- Zaldi gainean askotan ibilia baldin bazara,...

- A). aukera bakarra ordubete edo bi orduko ibilaldiak dira.
- B). aukera bakarra egun erdi edo egun osoko ibilaldiak dira.
- C). nahi duzun aukera baliatu dezakezu.
- D). egun erdi edo egun osoko ibilaldia aholkatzen dute.

6.- Zergatik eramaten dituzte zaldizko trebeenak bakarrik mendietara?

.....

.....

7.- Txangoetan, zer EZIN da ikusi?

- A). Errekak, amildegia, kobazuloak eta trikuharriak.
- B). Pagadi eta hariztiak.
- C). Baserriak, zuhaitzen gaineko etxolak eta baselizak.
- D). Gazteluak eta hartzak.

8.- Zaldian ibiltzen EZ dakienak ere gozatu dezake Errotaingo zaldiekin?

- A). Ez, oso zaila delako zaldi gainean ibiltzea.
- B). Bai, erraza delako zaldi gainean ibiltzea.
- C.) Bai, beraiek erakusten dizutelako.
- D). Ez, beldur handia pasatzen delako.

9.- Errotaingo zaldiak “izaera orekatukoak” direla esaten du testuak. Zergatik?

- A). Zaldiak jatorrak direlako.
- B). Zelaietan libre ibiltzen direlako.
- C). Umeekin eta hasiberriekin aritzen direlako.
- D). Indartsuak direlako.

10.- Zergatik erabiltzen dituzte zaldi berberak hasiberriekin eta zaldizko trebeenekin?

- A). Ibiltari trebeentzako direlako.
- B). Zaldiak edozein mailara egokitzen direlako.
- C). Zelaietan libre ibiltzen direlako.
- D). Zaldi indartsuak direlako.

11.- Testua eta irudiak ondo aztertu ondoren, zure ustez, Urdiaingo Errotan...

- A). zaldiak bakarrik aurkituko dituzu.

IDATZIZKO ULERMENA

- B). zaldiak eta etxeko animaliak daude.
- C). txerriak eta ahuntzak daude.
- D). txoriak eta zaldiak ikusiko dituzu.